

# Asisko gutuna

2024ko azaroa

1. printzipioa. Egutero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

193. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bizitza aurrera doanean eta bizitako izandako denbora oraindik bizitzeko dagoena baino dezente handiagoa denean, zer egin bizitzan egin dudak kalte konponezinarekin?

## Gogoetarako gaia

### *Ene Jauna! Zer egin dut?*

Gaztea zarenean eta etorkizuna irekita daukazunean, proiektuak egiteko garaia da, bide berriak proposatzeko, aukerak amesteko. Ia ez dago iraganik, baina bai etorkizun handia. Beraz, zerbait txarra egin badut, baliteke egindako kalte konpontzeko aukera izatea oraindik. Pertsona urteetan aurrera doanean, iragana etorkizuna baino luzeagoa da, eta bizi izandakoaren balantzea egiten da, eskerrak emateko motiboekin batera –asko egongo baitira, Jainkoari esker–, bizitzan gurutzatu diren pertsonen sufrimendua eragin dieten kalteak ere egongo dira. Eta jada ez dago konpontzerik. Beti daude egindako akatsak, eta horien ondorioak beste batzuek ordaindu dituzte; bidegabekeria eta sufrimendua sortu dira. Zer egin horrekin?

Batek esan dezake zirkunstantzien ondorio izan zela, heldutasun ezarena, hauskortasunarena edo oharkabea. Gure errua arintzeko joera dugu. Ez da erraza onartzea bizikidetzan, har-

tutako erabakietan, eginez edo ez eginez egindako akatsak norberaren erabakiaren ondorio direnik. Ez da erraza aitortzea pertsona jakin batzuen sufrimena norberak sortu dela. Baina, azkenean, erantzukizuna onartu behar dago.

Eta zer egin onartutako erruarekin? Bizitza norberarengan bakarrik oinarriturik eraman bada, dena bere askatasunaren proiektutik joan bada, errua astuna bihurtuko da, zapaltzen duen pisua, pertsonak ez daukalako beste heldulekurik bere burua baino. Hala ere, bizitza pixkana-pixkana Jainkoarenganako konfiantzan oinarritu bada, bizitzaren eta bere bekatuen gaineko epaia Haren errukian uzten ikasiko du. Horrek ez du ezertarako ezabatzen egindako gaizkiaren erantzukizuna, nahiz eta erruaren pisua arintzen duen. Honela, onartutako erruak ez du sufrimenduaren egilea deuseztatuko, baizik eta Jainkoaren errukiaren konfiantzan murgilduko da.

## Biblia pasartea: 2Sm 12,1-7

Jaunak Natan profeta bidali zion Davidi. Natanek esan zion: “–Hara, baziren hiri batean bi gizon, bata aberatsa eta bestea behartsua. Aberatsak ardi eta behi ugari zuen. Behartsuak, aldiz, erositako bildots koxkor bat baizik ez zuen. Berak elikatu zuen eta bere etxean hazi, seme-alabekin batera; bere ogitik eman ohi zion jaten eta bere edalontzitik edaten, eta bere magalean lotaratzen zuen. Alaba bezalaxe zuen. Behin batez, bisitari bat etorri zitzaion gizon aberatsari; honek ez zuen bere ardirik, ez behirik hartu nahi izan arrotz hari jaten emateko, baizik eta behartsuari kendu zion bildotsa; horrela prestatu zuen jakia bere bisitariarentzat.”

Biziki haserretu zen David halako gizonaren aurka, eta esan zion Natani: “–Ala Jauna! Hori egin duenak bai merezi duela heriotza! Hori egingo zuen, bada, inolako gupidarik gabe? Lau halako itzuli beharko du, bildotsaren ordain.”

Natanek, orduan, Davidi: –Zeu zara gizon hori!”

## Frantziskotar espiritualtasuna

Bestalde, bekatu guztiak aitortzen dizkiot Jainko Jaunari, Aita eta Seme eta Espiritu Santuari; Maria dohatsua beti birjinari eta zero-lurretako santu guztiei; anai Elias, gure Elkarteko Ministro jeneralari, neure jaun agurgarria dudanez, eta gure Ordenako apaizei eta gainerako ene anaia bedeinkatu guztiei. Gauza askotan huts egin dut neure erru handiz, batez ere Jaunari hitzemandako Erregelak ez betez eta ofizioa Erregelak agintzen duen bezala ez esanez, edo zabarkeriaz edo neure gaixotasunagatik edo ezjakin eta eskolagabea naizelako.

Eta nik ere hitzematzen dut gauza hauek tinko beteko ditudala, Jainkoak horretarako grazia emanik. Eta nirekin diren anaiei ere mandatua emango diet, ofizioari eta Erregelako beste xedapenei dagozkien hauek bete ditzaten.

(OrG 38-39.43)

## Otoitza

Jainkoa, Aita errukiorra,  
zure Maitasuna zure Seme Jesukristorengan agertu duzuna  
eta Izpiritu Santuan isuri diguzuna:  
munduaren eta gizaki ororen zoria zure eskuetan jartzen dizugu gaur.  
Makur zaitez guregana, bekatariongana, sendatu gure ahuldadea; menpera gaitz oro;  
egin ezazu lurreko biztanle guztiek zure errukia senti dezaten,  
zugan, Jainko Bakar eta Hirutasunean, beti esperantzaren iturria aurki dezaten.  
Betiereko Aita, Zure Semearen Pasio eta Piztueragatik,  
erruki zaitez gutaz eta mundu osoaz.  
Amen.

(San Juan Pablo II)

## Gutuneko azken hitzak

Bada erremediorik erruentsako: aitortzea.

(Franz Grillparzer, austriar dramaturgoa, XIX. mendean)

## 2024ko iraileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

|                 |                 |                  |                  |                  |
|-----------------|-----------------|------------------|------------------|------------------|
| 1. Mt 5, 1-12   | 7. Lk 15,1-10   | 13. Lk 17, 11-19 | 19. Lk 19, 1-10  | 25. Lk 21, 1-4   |
| 2. Mt 25, 31-46 | 8. Lk 16, 1-8   | 14. Lk 17, 20-25 | 20. Lk 19, 11-28 | 26. Lk 21, 5-11  |
| 3. Mk 12, 28-3  | 9. Jn 2,13-22   | 15. Lk 17,26-37  | 21. Lk 19, 41-44 | 27. Lk 21, 12-19 |
| 4. Lk 14, 12-14 | 10. Mk 12,38-44 | 16. Lk 18,1-8    | 22. Lk 19, 45-48 | 28. Lk 21, 20-28 |
| 5. Lk 14, 15-24 | 11. Lk 17, 1-6  | 17. Mk 13, 24-32 | 23. Lk 20, 27-40 | 29. Lk 21, 29-33 |
| 6. Lk 14, 25-33 | 12. Lk 17, 7-10 | 18. Lk 18, 35-43 | 24. Jn 18, 33-37 | 30. Mt 4,18-22   |

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Azaroko otoitza hilaren  
28ean izango da.